



UNITATE SUSTATAILEA	Kirolak
XEDEA	Eskola-kirolaren kudeaketarako eta arretarako egitura espezifikoak sortu eta garatzeko oinarri arautzaileen eta deialdiaren onarpena (2025).
ORDEZKARIA	
TITULARRA	Tolosako Udala

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udalbatzak, 2017ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (aurrerantzean, DOO) onartu zuela; ondoren, bi aldaketa izan ditu: bata, GAO, 68 zk., 2023-01-26an argitaratua, eta bestea, GAO, 89 zk., 2024-05-09an argitaratua.

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen 2023-2025 Plan Estrategikoan honako dirulaguntza lerroa sartua dago: **Eskola-kirolaren kudeaketarako eta arretarako egitura espezifikoak sortu eta garatzeko** dirulaguntza. Plan hori Udalbatzak onartu zuen 2022ko abenduaren 15ean (GAO, 21. zk., 2023-02-01).

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza-deialdirako 50.000 euro euroko zenbatekoa finkatu da, 2025ko udal aurrekontuaren 1000.481.02.341.00 partidan.

LAUGARRENA.- Alkateak, 2025-02-04 emandako Probidentzian, **Eskola-kirolaren kudeaketarako eta arretarako egitura espezifikoak sortu eta garatzeko** dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia egiteko espedienteari hasiera ematea agindu zuen.

BOSGARRENA.- Kirolak Saileko arduradunak proposamen teknikoa luzatu du aipatu dirulaguntzaren oinarri arautzaileak eta deialdiaren espedienteari hasiera emateko.

SEIGARRENA.- Horren ostean, dagokien sailek eta azpisailek (Berdintasunak, Euskarak, Kontu-hartzailetzak eta Idazkaritzak) euren txostenak igorri dituzte, honako ondorioekin:



TOLOSAKO
UDALA

2025DO100002

Egileak	Aldekoa / Kontrakoa / Baldintzatua	Oharra
Berdintasuna	BALDINTZATUA	2025eko deialdietan eta oinarri arautzaileetan ez da agertzen Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 7.3. artikulua (Dirulaguntzak emateko baldintzak). Hala ere, 7.3 artikulua hori osorik agertzen ez bada ere, oinarri honetan 12. artikuluan (Pertsona/entitate onuradunen betebeharrak eta konpromisoak) jasotzen da. Beraz, derrigorrezkotzat jotzen da, 7.3. artikulua Ordenantza orokorrean azaltzen den bezala, oinarri arautzaileetan osorik txertatzea. Eta horrela txertatzea: Era berean, ezinbesteko baldintza izango da agiri, irudi edo material guztiek hizkuntzaren erabilera ez[1]sexista baliatzea, estereotipo sexistak edo emakumeen bereizkeria eragin ditzaketen irudi oro saihestea eta honako balio hauek sustatzea: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna erantzukidetasuna, eta genero-eginkizunen eta identitateen aniztasuna.
Euskara	ALDEKOA	
Juridikoa	BALDINTZATUA	Oinarrien eta deialdiaren proposamenean aldaketak egitea. Txosten teknikoan aldaketak egitea.
Kontuhartzailatza	BALDINTZATUA	Txostenean adierazitako aldaketak egin beharko lirатеke. Garrantzi berezia du dirulaguntza banaketa irizpideen inguruan adierazten dena kontuan izateak.

ZAZPIGARRENA.- Txosten horietan adierazitako alderdi guztiak kontuan izan ditu Kirolak Sailak eta dagozkion zuzenketak egin ditu.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotzen du udalerriko eskumen propioen artean daudela: 19) Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak



kudeatzea.

BIGARRENA.- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 38/2003, (aurrerantzean, DLO) 9.2 artikuluan ezartzen du: «dirulaguntzak eman aurretik, emakidaren oinarri arautzaileak onartu beharko dira, lege horretan ezarritakoaren arabera».

Horren haritik, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 1873/2017 Epaiaren arabera, lehiaketa-deialdien eta horien oinarrien araubide juridikoa ez da zeharkako aurka egitea ahalbidetzen duen xedapen orokor bat; izan ere, administrazio-egintza bat baino ez da, zehaztu gabeko interesdun-multzo bati zuzendua, legezko eta erregelamenduzko arau zehatzen eta berezien aplikazio zehatz eta bakanekoa, iraupen handia ez duenez ordenamendu juridikoan integratzen ez dena.

Beraz, oinarrien egintza-izaera ez da xedapen orokor bat, administrazio egintza bat baizik.

HIRUGARRENA.- DLOren 22.1 artikulua arabera, «**dirulaguntzak emateko ohiko prozedura** norgehiagoka-erregimenean izapidetuko da. Lege honen ondorioetarako, norgehiagokatzat hartuko da aurkeztutako eskabideak alderatuz dirulaguntzak emateko prozedura, oinarri arautzaileetan eta deialdian alde aurretik finkatutako balorazio-irizpideen araberrako hurrenkera ezartzeko, eta irizpide horiek aplikatuta baloraziorik handiena lortu dutenak esleitzeko, erabilgarri dagoen kredituaren barruan deialdian ezarritako mugarekin».

Salbuespen gisa, eta oinarri arautzaileetan hala aurreikusten baldin bada, organo eskudunak dirulaguntzaren onuradunen artean hainbanatuko du dirulaguntzei bideratutako gehienezko kopuru osoa.

Ezin daiteke eman deialdian zehaztutako kopurua gainditzen duen dirulaguntzarik.

LAUGARRENA.- Era berean, DLO 17.3 artikuluan adierazten dira dirulaguntzen oinarriek gutxienez jaso beharreko alderdiak zeintzuk diren. Atal horietaz gain, DOOean 19. artikuluan zehazten dira aurreko artikuluan aipatutakoei erantsi beharreko alderdiak. Horiek guztiak, lege-txostenean xedatu bezala, espedienteen jasotzen dira.

BOSGARRENA.- DLOeko 8. artikuluan xedatutakoa kontuan izanda, dirulaguntza lerro hau honako arrazoiengatik jotzen da intereskotzat:

Dirulaguntzaren xedea:	Tolosako ikastetxeei edo IGEEi dirulaguntzak eskuratzeko duten aukera arautu eta laguntzak ematea, eskola kiroleko kudeaketa eta arreta hobetzeko izaera egonkorra izango
------------------------	---



	duten egitura espezifikoak sortzeko eta garatzeko izango da.
Dirulaguntzarekin espero diren emaitzak:	Eskola kirolako egitura ezberdinak sendotze bidean jartzea. Ikasleen partehartzea areagotzea, neska eta mutilen proportzio orekatua bermatuz. Eskola kiroleko esperientziatik abiatuta, etorkizunean, kirola eta jarduera fisikoaren zaletasuna eta beharra baraneratuz, bizi ohitura bilakatu dadin.
Dirulaguntzaren beharraren justifikazioa:	Eskola kiroleko koordinatzaile zein begiraleen lan baldintza duinak bermatzeaz gain, 6-12 urte bitarteko edozein ikaslek eskola kirola egin dezan, Udalak egituren finantziaketa premiazkotzak jo du.

SEIGARRENA.- Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 14.3 artikuluan dirulaguntzen bateragarritasunari edo bateraezintasunari buruzkoa da. Zehazki, honako hau jasotzen da: oro har, eta oinarri arautzaileetan adierazitakoari kalterik egin gabe, deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean, oinarri hauen arabera ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik badatoz, beste dirulaguntza konkurrente batzuk arautzen dituen araudiak horri buruz ezartzen duenari kalterik egin gabe.

ZAZPIGARRENA.- Oro har, oinarri arautzailean eta deialdian, xedatzen denari kalterik egin gabe, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrarekin bat etorrita ematen diren dirulaguntzak bateragarri izango dira helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe beste dirulaguntza horien araudiak horri buruz agindu dezakeenari. Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa kasuetan honako baldintza hauek bete behar dira:

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gaintitu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua. Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta haien jatorria adierazita daudela

Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko du, berandutze-intereseekin batera, dagokion



justifikazioari ordainketagutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan. Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, eskatuko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

ZORTZIGARRENA.- Oinarri arautzaileek DLOren 17.3 artikuluan ezarritako edukia izan behar du ezinbestez, eta deialdiak berriz DLOren 23.2 artikuluan eta DOOren 19. artikuluan ezarritakoa. Gainera, DLOren 18. eta 20. artikuluetan aurreikusitako publizitate- eta gardentasun-betebeharrak betetzeko, argitaratu beharko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan (DDBN - BDNS), zeinak dirulaguntza eta laguntza publiko guztien deialdiak argitaratuko dituen.

BEDERATZIGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean 21.1.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarreko legeak emandako eskumenak baliatuz, alkateari dagokio onartutako aurrekontuaren araberrako kudeaketa ekonomikoa garatzea, bere eskumeneko muga barruan gastuak xedatzea.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, Alkate honek honako hau

E B A Z T E N D U

LEHENENA.- Eskola-kirolaren kudeaketarako eta arretarako egitura espezifikoak sortu eta garatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzea, testu honen arabera:

2. lerroa: Eskola-kirolaren kudeaketarako eta arretarako egitura espezifikoak sortu eta garatzeko dirulaguntzak emateko 2025eko oinarri arautzaileak.

1. Dirulaguntzaren xedearen definizioa

Oinarri hauen xedea da arautzea Tolosako ikastetxe edo guraso-elkarteei eskola-kirolaren programarako ematen zaizkien dirulaguntzak, lehia bidezko konkurrentzian ematen direnak. Bi atal daude:

I. atala: eskola-kiroleko egitura espezifiko egonkorak sortzeko eta garatzeko.

II. atala: eskola-kirolaren esparruan, eskola-orduetan egiten diren eta onura dakarten jardueretarako garraio-gastuei aurre egiteko laguntzak.

Eskatzaile bakoitzak atal batean edo bietan parte hartu ahal izango du.

2. Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatzea

Dirulaguntza-lerro hau Tolosako Udalaren 2023-2025 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago. Osoko Bilkurak onartu zuen plan hori 2022ko abenduaren 15ean (GAO, 21. zk., 2023ko otsailaren 1ekoa).

3. Entitate onuradunak



Entitate onuradun izan ahalko dira Tolosako ikastetxeak edo guraso-elkarteak, baldin eta oinarri hauetan eta dagokien deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

4. Entitate onuradunek dirulaguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak

Hona hemen entitate onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak:

1. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.
2. Beteazte-aldian Tolosako Udalarekin zerga-zorrik edo -zehapenik ez izatea, non eta ez dauden geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda.
3. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako kasuren batean.
4. Ez izatea administrazio-, lan- edo zigor-zehapen irmorik dagokion zehapenean ezarritako aldian berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik, ez izatea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako debekurik, ez eta araudi aplikagarrietan ezarritako bestelako kausarik ere.
5. Ez egitea emakumeen edo emakume-taldeen sexuagatiko diskriminazioa edo diskriminazio anizkoitzeko faktoreak eragiten dituzten jarduerak, diskriminazio- egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk gertatzen direnean, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-joera, genero-identitatea, genero-adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibitate-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratibo.

Hona hemen onuradunek bete beharreko baldintza espezifikoak:

1. Diruz lagundutako jarduerak bat etorri behar du haren xede edo helburu sozialekin.
2. Tolosan izatea egoitza soziala.
3. Gipuzkoan eskola-kirolari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoa betetzea.
4. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren irizpideekin bat datorren jarduera-egitarau bat (Jolashezi, Multikirola) diseinatzea, neskek eta mutilek tratatu eta aukera berdinak izango dituztela bermatuta.

5. Dirulaguntzak emateko prozedura.

Lehia bidezko prozedura erabiliko da, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarraren bidez.

Prozedura ofizioz hasiko da deialdi publiko bidez, organo eskudunak onartuta eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

Prozedura honen bidez, dirulaguntzak emateko, oinarri hauetan ezarritako irizpideen arabera ebaluatzen dira aurkeztutako eskaerak.



6. Diruz lagun daitezkeen gastuak

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian ezarritako epearen barruan egitea; eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Hauek dira diruz lagun daitezkeen gastuak:

I. atalean, helburua izanda eskola-kiroleko jardueren kudeaketa eta arreta hobetzea:

- Eskola-kirolaren koordinatzaile pedagogikoa
- Begiraleak
- EKI, inklusio taldeak
- Zaurgarritasun ekonomikoko egoeran dauden ikasleak.

II atalean, helburua izanda eskola-kirolaren esparruan eskola-orduetan egiten diren eta onura dakarten jardueretarako garraio-gastuei aurre egiten laguntzea:

- Ikasleak Usabal kiroldegiko igerilekuetara garraiatzeko gastuak (taxia, autobusa).

Diruz lagun daitezkeen gastuaren zenbatekoa, obra-exekuzioaren kostuari dagokionez, 40.000 eurotik gorakoa bada (BEZa sartu gabe), edo aholkularitza edo asistentzia teknikoko enpresek egindako ondasun-horniketa edo zerbitzu-prestazioen kasuan 15.000tik gorakoa bada (BEZa sartu gabe), onuradunak, gutxienez, hiru eskaintza eskatu behar dizkie hiru hornitzailei, zerbitzu-prestazio edo ondasun-horniketarako konpromisoa onartu baino lehen. Hau da salbuespena: diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez egotea behar adina entitate dagokion horniketa egiteko edo zerbitzua emateko, edo gastua dirulaguntza-eskaera egin baino lehen eginda egotea, eta agiri bidez hala egiaztatzea.

Eskatu diren hiru eskaintza horiek aurkeztu egin behar dira justifikazioa egiterakoan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran, eta haien arteko hautaketa eraginkortasun-eta ekonomia-irizpideen arabera egin behar da. Hala, aukeratutako eskaintza ez bada ekonomikoki onena, txosten batean justifikatu beharko da hautaketa hori.

Ez dira, inolaz ere, diruz laguntzeko gastuak izango hauek:

- Banku-kontuetako interes zordunak.
- Interesak, errekarquak eta zehapen administratibo eta penalak.
- Prozedura judizialek eragindako gastuak.
- Zeharkako zergak, errekuaragarriak edo konpentsagarriak izan badaitezke.
- Errentaren gaineko zerga pertsonalak.
- Entitate onuradunaren ondasun inbentariagarrien amortizazio-gastuak, jarduera garatzeko erabiltzen badira (salbu eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 31.6 artikuluko baldintzak betetzen badira).

7. Eskaerak aurkezteko modua eta lekua



Oinarri hauek eta deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratuko dira.

Pertsona juridikoen, nortasun juridikorik gabeko entitateek eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 eta 14.3 artikuluetan zehaztutako beste batzuek telematikoki aurkeztu beharko dituzte eskaerak, Tolosako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez.

8. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Udalak emandako eskaera-orri normalizatua. Udalaren egoitza elektronikoan sartu, eta hortik dagokion dirulaguntza-lerroan sartuta eskura daiteke: https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=E_U07112885 . Eskaera-orri hori entitate eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatu beharko du.

Eskaera-orrian, hauek adierazi behar dira:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, aplikatzekoa den araudiaren arabera dirulaguntzak lortzeko debekurik ez duela adierazten duena.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, beste sail, instituzio, erakunde eta abarretan egindako dirulaguntza-eskaerak edo, hala badagokio, jarduera edo helburu bererako eman zaizkionak jasotzen dituen.

2. Ordezkaritza-agiria hala badagokio.

3. Jardueraren proiektua (DKEK-PRE-00 inprimakia), besteak beste honako hauek adierazita:

a) Jardueraren hedapenerako euskararentzat aurreikusitako tratamendua.

b) Genero-ikuspegiaren eta ikuspegi intersektionalaren tratamendua proiektuan, eta berdintasun-helburuen presentzia, aldez aurreko egoera diferentzialaren arabera, hala badagokio.

4. Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua (inprimaki bera)

Agiriak kontsultatzearen aurka egin bada:

5. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.

6. Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.

Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.

7. Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.

8. IGAEn BDNSn dirulaguntzak eta laguntzak eskuratzeko inhabilitazioaren agiria.

9. Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela Tolosako Udalaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko.



Ondorio horietarako, pertsona edo erakunde interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, betiere 5 urte baino gehiago igaro ez badira dagokien prozedura amaitu zenetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.3 artikuluaaren arabera, eta organo instrukzio-egileak eskatu beharko ditu, salbu eta prozeduran jasota badago pertsonaren/erakundearen berariazko aurkakotasuna, edo aplikatzekoa den lege bereziak berariazko adostasuna eskatzen badu.

Era berean, herritarrei aitortzen zaie edozein Administrazio eginiko dokumentuak ez aurkezteko eskubidea. Tolosako Udalak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez. NISAE euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztiek erabiltzen duten plataforma da, datu elektronikoak administrazio batzuen eta besteen artean partekatzeko nodo autonomikoa, hain zuzen.

Entitate eskatzaileek berariaz adierazi ahal izango dute ez daudela ados dokumentuak egiaztatzearekin; horrelakoetan, haiek aurkeztu beharko dituzte dokumentuak.

Ildo horretan, dirulaguntza lerro honetarako, honako baldintza hauek egiaztatuko dira NISAE bitartekaritzarako edo sarbide publikorako plataforma korporatiboen bidez:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.
- IGAEn BDNSn dirulaguntzak eta laguntzak eskuratzeko inhabilitazioaren agiria.
- Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.
- Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.

Salbuespenez, instrukzio-organismoak ezin baditu aurreko paragrafoetan aipatutako agiriak eskuratu, berriz eskatu ahal izango dio entitate eskatzaileari aurkez ditzala.

Besterik ezean, prozedura bideratu eta ebazteko ardura duen organo eskudunak eskatu ahal izango du aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri guztia.

10. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria

Prozedura hasteko eskaeran ez badira betetzen deialdian ezarritako baldintzak, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, adieraziko zaio, eskatutakoa egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Horretarako, ebazpena emango da, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta.

11. Dirulaguntzaren zenbateko indibidualizatua zehazteko irizpideak

Ebaluatzeko adierazleak honela puntuatuko dira:

I. atalerako, helburu izanik eskola-kiroleko jardueren kudeaketa eta arreta hobetzea, honako hauek puntuatuko dira:



I.- Eskola-kirolean izena ematea:

Gipuzkoako Foru Aldundiak Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3., 4., 5., eta 6. mailetako ikasleentzako dituen Jolashezi edo Multikirola programetan Tolosako ikastetxeek inskribatzen dituzten taldeak baloratuko dira, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Gutxienez 8 ikaslek eman behar dute izena. Hala ere, 6 ikasleko taldeak onartuko ahal izango dira, Aldundiak onartu baditu.
- Jolashezi taldeen kasuan, dirulaguntzarako kontuan hartuko dira Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako eduki didaktikoak jarraitzen dituztenak: Jolashezi proiektua.
- Jolas Hezi eta/edo Multikirola taldeko begirale bat izatea.
- Eskaintza garatzea, astean gutxienez saio batekin.

Hasieran, banatu beharreko kopuru osotik 500 euro gordeko dira, eta kopuru hori erabiliko da Jolasezi eta/edo Multikirola programan eskola-kirol inklusiboko (EKI-EKE) taldeak dituzten ikastetxeentzat; hau da, dibertsitate funtzionala duten eta ez duten ikasleek osatutako taldeak dituzten ikastetxeentzat.

83 €-ko dirulaguntza emango da ikastetxe eta EKI-EKE talde bakoitzeko, eta gehienez bi talde ikastetxe edo eskola-kiroleko egitura bakoitzeko.

Halaber, diru kopuru osotik, gehienez, 3.000 € gordeko dira eskola-kirolean parte hartzeko zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleek laguntzeko. Ikastetxeko zuzendaritzak eta guraso-elkarteko zuzendaritzak dagokion txostena egin beharko dute, eta zerrenda bat egin egoera horretan dauden eta dirulaguntzaren xede den ikasturteko eskola-kirolaren programan izena eman eta parte hartu duten ikasleekin.

Helburu horretarako erreserbatutako guztizko zenbatekoaren % 60 (1.800 €) ikastetxe publikoko ikasleentzat izango da, eta % 40 (1200 €) itunpeko ikastetxeetako ikasleentzat; bakoitzerako % 20 (600 €+ 600 €).

Ikastetxe publikorako, gehienez ere, 100 €-ko dirulaguntza emango da ikasleko, eta itunpeko ikastetxeetako ikasleko, gehienez, 40 €-ko dirulaguntza.

Eskaeren guztizkoak gauditu egiten badu helburu horretarako erreserbatutako zenbatekoa (3.000 €), eta dirulaguntzak banatu ondoren soberakina badago, soberakin hori erabiliko da, atal honetan ezarritako ehunekoei eta mugei jarraikiz.

Soberakina geratzen bada, banatu beharreko guztizko kopurura itzuliko da.

Dirulaguntza adierazle hauen arabera emango da:

- a) Parte hartzen duten taldeen kopuruarekin lotutako irizpideak.

Talde bakoitzari dirulaguntza-modulu bat ezarriko zaio jarduera-hilabete bakoitzeko, eta zenbatekoak saio-kopuruaren eta begiraleen lan-harreman motaren arabera aldatuko dira.

Begiraleek ikasturteko eskola-lizentzia izan behar dute; baita euskaraz komunikatzeko



gaitasuna ere.

Honako modulu eta zenbateko hauek ezarri dira:

- Astean saio bateko taldeak (asteburuko saioa kontuan hartu gabe) eta kontratatutako teknikariak: 165 euro gehienez hilabeteko.
- Astean bi saio edo gehiagoko taldeak (asteburuko saioa kontuan hartu gabe) eta kontratatutako teknikariak: 241 euro gehienez hilabeteko.
- Astean saio bateko taldeak (asteburuko saioa kontuan hartu gabe) eta teknikari boluntarioak: 40 euro gehienez hilabeteko.
- Astean bi saio edo gehiagoko taldeak (asteburuko saioa kontuan hartu gabe) eta teknikari boluntarioak: 60 euro gehienez hilabeteko.

b) Ikastetxeetako koordinazio-lanei buruzko irizpideak.

- Moduluen zenbatekoen baturatik ateratzen den zenbatekoari honako zenbateko hauek gehituko zaizkio, hain zuzen, ikastetxeetan jardueren koordinazioa sustatzera bideratuta:
- 500 euroko zenbateko finkoa ezarriko da eskola-kirolaren koordinatzaile pedagogiko gisa pertsona bat izendatuta duen eta eskola-kirolaren aplikazioan hala jasota dagoen erakunde eskatzaile bakoitzeko.
- Zenbateko finko horri 1.000 euro gehituko zaizkio, baldin eta entitate eskatzaileak eskola-kirolaren koordinatzaile pedagogiko bat berariaz kontratatua eta izendatua badu, lanaldi oso baten % 60ko edo handiagoarekin, eta eskola-kirolaren aplikazioan hala jasota badago.
- Koordinatzaile pedagogikoak lanaldi osoaren % 50eko gutxieneko dedikazioa badu koordinazio-eginkizunetarako, kasu horretan bakarrik gehituko da beste kopuru bat, aldakorra, jardueren koordinazio-kostu gisa, eta udalerriko Jolashezi eta Multikirola programetako taldeek astean zehar egindako saio-kopuruaren arabera baloratuko da. Zehazki, 10 saioko multzo bakoitzeko, ordu bat hartuko da koordinazio gisa, eta 8,9 euroan baloratuko da.
- Zenbateko hori ez zaie esleituko ikasturtean Jolasheziko edo Multikiroleko jarduerarik egin ez duten ikastetxeei.

Lortutako batura ikastetxeari dagokion dirulaguntzaren emaitza izango da.

Dirulaguntzaren ondorioetarako, begiraleen eta koordinatzaileen ordainsariei eragindako gastuak bakarrik hartuko dira kontuan. Langile-gastuak agiri bidez egiazta daitezke: nominak, edo nomina-programatik lortzen den langileko urte osoko laburpena, biak sinatuta. TC1 eta TC2, edo 190 eredu. 190 ereduaren bidez justifikatzen bada, zehaztu egin beharko da zer zenbateko dagokion 2024. urteari eta zer 2025. urteari.

Gipuzkoako Foru Aldundiak abian den ikasturterako onartutako eskola-kirolaren programako jardueretan kontratatutako teknikaritzat (begiraleak) hartuko dira baldintza hauek betetzen dituztenak:

- Lan-egoera erregularizatuta izatea lan-kontratu bidez, zerbitzuak emanez



(fakturazioa) edo indarrean dagoen lan-legeriarekin bat datorren beste moduren batean.

- Lan-egoera erregularizatua egiaztatzen duen dokumentazioa hartuko da kontuan (nominak, 10 T eredia, etab.).
- Monitore bakoitzeko 5 talde baino gehiago ez kontabilizatzea.
- Taldeek 23-24 ikasturtean egitea jarduera hori.

Aurkeztutako proiektuei dagokien zenbatekoa deialdirako erabilgarri dagoen kreditua baino handiagoa bada, onartutako eskaera guztien artean hainbanatuko da.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezartzeko, kontuan hartuko da eskatzaile bakoitzak zer zenbateko lortu duen ezarritako moduluen arabera, bai begiraleentzat, bai koordinatzaile pedagogikoarentzat. Atal honetako dirulaguntzen guztizko zenbatekoa onartutako eskaera guztietatik lortutako zenbatekoen baturarekin zatituko da. Ateratako emaitzak deialdi honetarako xedatutako dirulaguntza (50.000 €) gaindituko balu, kopuru hori hainbanatu egingo da onartutako eskatzaile guztien artean.

Era berean, dirulaguntzaren zenbatekoa finkatzeko, aurkeztutako defizita hartuko da aintzat.

II. atalerako, helburua izanik eskola-kirolaren esparruan, eskola-orduetan egiten diren eta onura dakarten jardueretarako garraio-gastuei aurre egiteko laguntzak ematea, hala eskatzen duten erakundeek kasuan, ikasleak kirol-instalaziora joateko gastuaren % 100 lagunduko da diruz, betiere behar bezala justifikatuta badago (jardueraren memoria eta joan-etorrien faktura).

Laguntza hau Tolosako ikastetxeek bakarrik jaso ahal izango dute, baldin eta Usabal kiroldegitik bi kilometrora edo urrunago badaude.

Hasieran, banatu beharreko guztizko zenbatekotik 6.000 € gordeko dira, igeriketa-kanpainaren garraio-gastuak ordaintzeko.

Soberakina geratzen bada, banatu beharreko zenbateko osora itzuliko da.

12. Entitate onuradunen betebeharrak eta konpromisoak

Euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu –euskarari lehentasuna emanda– diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi jakinetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.

Ezinbesteko baldintza izango da agiri, irudi edo material guztiek hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea, estereotipo sexistak edo emakumeen bereizkeria eragin ditzaketen irudi oro saihestea, eta honako balio hauek sustatzea: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna, eta genero-eginkizunen eta identitateen aniztasuna.

Diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera



edo baliabide batzuk lortuz gero, horren berri eman beharko zaio dirulaguntza ematen duen organoari edo entitate laguntzaileari.

Betebehar espezifikak:

Ikastetxe edo elkarte onuradunak honako betebehar hauek izango ditu:

- Eskola-kirolaren arretarako egitura espezifiko bat sortzeko konpromisoa hartuko du, eta egitura horrek ase egin beharko ditu diseinatutako kirol-programa gauzatzeko sortzen diren koordinazio-beharrak eta irakasleen/teknikarien beharrak.
- Koordinatzaile bat izendatuko du, eta ikastetxeak antolatutako eskola-kiroleko jardueren koordinazio-funtzioak beteko ditu.
- Koordinatzaile hori izango da Udaleko Kirolak Sailarekin eskola-kirolari lotutako gaiez aritzeko solaskide bakarra.
- Ikastetxeak zehaztu beharko du zein diren modu egokienak ikastetxeko eskola-kiroleko egituraren eta kirol-elkarteen edo beste entitateen arteko harremanak bideratzeko, eskola-kiroleko jarduera horiek ikastetxeko hezkuntza-proiektu orokorrarekin behar bezala txertatzen direla bermatzeko.
- Egitura horretako eskola-kiroleko koordinatzailea ikastetxearen mende edo, hala badagokio, erabakitzen den entitatearen mende egongo da. Ikastetxeari edo entitateari bidezkoen iruditzen zaien modu eta baldintzetan kontratatuko dute, gaikuntza egokia duela bermatzeko moduan; ez soilik alderdi tekniko edo kirol alderdietan, baizik baita eskola-kirolaren beste heziketa-planteamenduetan ere.
- Monitore edo begiraleen kasuan, ikastetxe bakoitzak erabakiko du, bere berezitasunak aintzat hartuta, zer formula aplikatu. Hala ere, egokiena da —eta hala sustatuko da— tokiko kirol-klubek ikastetxeekin lankidetzat hitzarmenak sinatzea, kirol-klubetako zerbitzu teknikoek ikasleen kirol-hastapeneko prozesuetan parte har dezaten, ikastetxeak ezarritako hezkuntza-helburuekin bat etorritz.
- Ikastetxeak lagundu egingo du, adin jakin batzuetan eta kirol-modalitate bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuta, ikasleak kirol-klubetara joatea, kirola egiten jarrai dezaten bermatzeko eskolatze-garaia amaitzen denean, bai errendimendu-helburuei begira, bai aisialdiko helburuei begira.
- Eskola-kiroleko egiturek, Udalak eta kirol-elkaratek sustatuko dute eskola-kiroleko begirale horiek prestakuntza-jardueretan parte hartzea, haien kualifikazioa ahalik eta egokiena izan dadin. Eskola-kiroleko egituren helburu izango da teknikarien profesionalizazioa eta lan-erregularizazioa ere.
- Begiraleek ere, 2026rako bete beharko dute titulazioari dagokionez lege honek eskatzen duena: Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa.
- Eskola-kiroleko egiturek eskualdeko Eskola Kirolaren Batzordean parte hartzeko konpromisoa hartuko dute. Parte-hartze hori, behar den unean, ikastetxeko eskola-kiroleko koordinatzaile pedagogikoaren bitartez gauzatuko da, Usabal kiroldegian astero egiten diren bileretan parte hartuta.



- Egitura bakoitzak izango du kirol-egitaraua (Jolashezi, Multikirola), eta hor sartuko ditu hala ibilbideak, nola jarduerak, edozein dela ere haiek garatzeko eremu fisikoa (ikastetxea, kirol-kluba, udal-instalazioak) eta urte-sasoia (eskola-garaia edo opor-garaia).
- Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskola-kirolaren arloan indarrean dituzten gidalerroetan eta legerian oinarritu beharko da kirol-programa. Era berean, bat etorriko da udalaren kirol-politikaren interesekin eta ikastetxearen helburuekin, eta herriko gainerako ikastetxeekin koordinatuta egongo da.
- Jolashezi programak Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako eduki didaktikoak bete beharko ditu: Jolashezi proiektua.
- Egitura bakoitzaren eskumena izango da eskola-kirolaren hezkidetzaren helburuak betetzen direla zaintzea, eta, horretarako, neska-mutilen tratua eta aukera-berdintasuna ahalbidetzea jarduera guztietan, helburu horiek lortzea bermatzen duten baldintzetan.
- Ikastetxeek haien kirol-instalazioak eskainiko dituzte udalerrian eskola-kiroleko jarduerak garatzean sortzen diren beharretarako.
- Klubek edo elkarteek bultzatzen dituzten kirol-modalitate eta jardueretan euskararen erabilera lehentasuna izatea bermatuko da dirulaguntzaren xede den ekintzan, bai eta horren publizitatean eta hortik etor litezkeen hitzaldi eta antzekoetan ere. Era berean, partehartzaileekin erabiliko den hizkuntza euskara izango da.
- Emakumeen eta gizonen tratua eta aukera-berdintasuna sustatzea, ikastetxeak sustatzen duen kirolari eta jarduerari lotuta (emakumeen ordezkartza bai kirol-arloan, bai kudeaketa-organoetan).
- Oro har, dirulaguntzak arautzen dituen araudian jasotako beste edozein.

13. Bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, edozein dela ere haiek ematen dituen administrazioa, erakunde publiko nahiz pribatua, izan Estatukoa, Europar Batasunekoa edo nazioartekoa

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere haiek ematen dituen estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko administrazioa edo erakunde publiko nahiz pribatua, eta hargatik eragotzi gabe horren inguruan beste dirulaguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketena.

Dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du, inolaz ere, gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez bakarrik, ez eta beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera ere.

Muga hori ez dela gainditu egiaztatzeko, diruz lagundutako gastu osoa justifikatu beharko da.

Proiektuaren edo jardueraren kostua baino gehiago finantzatzeko bada, onuradunak itzuli egin beharko du, berandutze-interesekin batera, eta ordainketa-gutunak dagokion



justifikazioari erantsi beharko dizkio.

Hala ere, Tolosako Udalak gehiegizko finantzaketa ikusten duenean, gehiegizko zati horren zenbateko osoa itzultzeko eskatuko du, Udalak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

14. Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntza ordaintzeko bi aukera egongo dira, eta onuradunak eskaeran aukeratutakoaren arabera egingo da:

1. Eskatzaileak baliabide aski izan ez, eta aurrerakina jasotzeko aukera markatu badu, dirulaguntzaren % 75 hura ematea onartzen den unean ordainduko da. Gainerako % 25a ordainduko da justifikazioa aurkeztu, eta organo eskudunak onartzen duenean.
2. Baliabide aski izan eta aurrerakinik jasotzeko beharrik ez dagoela markatu bada, dirulaguntzaren % 100 ordainduko da organo eskudunak justifikazioa ontzat ematean.

15. Dirulaguntzaren justifikazioa

1. Onuradunak justifikatu beharko du egin duela dirulaguntza jaso duen jarduera; baita jarduera horrek sortutako gastuak ere.

2. Justifikaziorako baliagarriak diren agiriak Udalaren egoitza elektronikoan eskura daitezke, dagokion dirulaguntza-lerroan sartuta: <https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=E U07112885>

3. Dokumentu hauek aurkeztu behar dira 2025eko irailaren 15a baino lehen:

a) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-memoria (DKEK Memoria), egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, memorian sexuaren arabera bereizita adieraziko da honako hauei buruzko informazioa: emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak, titularrak eta langileak, eta dirulaguntza-eskaeraren xedea den zerbitzua emateko erakundeak kontratatutako langileak.

Memorian berariaz jaso beharko da dirulaguntzaren helburua bete dela, eta, hala badagokio, lortutako emaitzen ebaluazioa egin beharko da, lortutakoa aurreikusitakoarekin alderatuta.

a) GAS-KI dokumentua: gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua izango du, eta bertan identifikatuta jarri beharko dira hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen-eta ordainketa-datak. Jatorrizko formatuan aurkeztu behar da dokumentua (.xls), sinadurarik gabe.

Finantzaketa-iturri bat baino gehiago erabili bada, Tolosako Udalak, gastu horri dagokionez, zer ehuneko finantzatu duen adieraziko da.

Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, gastuen eta



inbertsioen zerrenda diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren partiden arabera ere sailkatuko da, izandako desbideratzeak adierazita.

Gastuaren zenbateko osoak diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostu osoa islatu beharko du.

b) BAL-KI dokumentua: diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren gastuen eta diru-sarreraren zerrenda jasoko du, eta proposatutako ereduaren arabera jaso beharko da entitate onuraduneko presidenteak edo idazkariak sinatu beharko du.

c) GAS-KI dokumentuko gastuen zenbatekoek bat etorri beharko dute balantzeko gastuen zenbatekoekin.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

e) Hiru hornitzailei eskatutako hiru aurrekontuak, baldin eta diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu. Hau da salbuespena: ezaugarri bereziak izateagatik, merkatuan ez egotea horiek egin, eman edo hornitzen dituen nahikoa entitate, edo gastua dirulaguntza eman aurretik egitea. Inguruabar horiek behar bezala justifikatu beharko dira.

Dirulaguntzaren justifikazioa aurkezteko «kontu sinplifikatua» modalitatea erabiliko denez, dirulaguntza ematen duen organoak gastu-frogagiriaren lagin bat aztertuko du, dirulaguntzaren aplikazioa egokia dela egiaztatzeko.

Aipatutako dokumentazioa aurkeztu, eta organo eskudunak errekerimendua egin ondoren, dagokion dokumentazio gehigarria aurkeztu beharko da:

- Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako dokumentuak, aurreko lehenengo puntuan aipatzen den zerrendan eskumena duen organoak berariaz eskatutakoak.
- Dokumentazio horren ordainketen egiaztagirak.

Onuradunak 10 eguneko epea izango du dagokion dokumentazioa aurkezteko, aipatutako errekerimenduaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Jatorrizko agiri horiek korrelatiboki ordenatuta aurkeztuko dira, zenbakitutako zerrendan esleitutako hurrenkera-zenbakiaren arabera. Gastuaren faktura eta ordainagiri guztiak PDF dokumentu bakar batean aurkeztu beharko dira.

Egiaztatu beharreko elementu kopurua honako muga hauekin kalkulatu da:

1. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 25 gainditzen duten egiaztagiri guztiak egiaztatuko dira.
2. Gainerako egiaztagiriei dagokienez, elementuen lagin bat egiaztatuko da, populazio osoaren elementu kopuruarekiko, gutxienez, ehuneko hau osatzen duena:
 - Frogagiri-kopurua hamar edo txikiagoa bada: 100eko 100.
 - Frogagiri-kopurua hamar baino handiagoa eta hogeit hamar edo txikiagoa bada: 100eko



70.

- Frogagiri-kopurua hoge baina handiagoa eta berrogeita hamar edo txikiagoa bada: 100eko 40.
- Frogagiri-kopurua berrogeita hamar baina handiagoa eta ehun edo txikiagoa bada: 100eko 30.
- Frogagiri-kopurua ehun baina handiagoa bada: 100eko 20.

16. Dirulaguntza aldatzea

Dirulaguntza emateko ebazpena edo erabakia, onuradunak eskatuta, aldatu egin ahal izango da, baldin eta gerora sortutako eta aurreikusi ezin diren inguruabarrek dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badituzte, eta betiere, aldaketa horiek ez badituzte indargabetzen emandako dirulaguntzaren izaera eta helburuak, aldaketak ez badie hirugarren pertsonen edo entitateen eskubideei kalterik egiten, eta eskaera jarduera egiteko epea amaitu baina lehen aurkeztzen bada.

17. Itzulketen araubidea

Aldi berean beste ekarpen batzuk lortzen badira oinarri hauetan ezarritako kasuetatik eta baldintzetatik kanpo, ezarritako betebeharrak edozein betetzen ez bada, edo Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 36. artikuluan ezarritako beste edozein kasu gertatzen bada, emandako zenbatekoa deuseztatu egingo da edo itzuli egin beharko da.

Horri dagokionez, Tolosako Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren VI. kapituluan ezarritakoa aplikatuko da, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, uztailaren 21eko 887/2002 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoa ere.

18. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea

Honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren VIII. kapituluan; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean; uztailaren 21eko 887/2002 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan; eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoa ere.

19. Aplikatu beharreko araudia

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak honako arau-xedapen hauetan ezarritakora egokituko dira:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategia onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua.
- Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.



- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.
- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

BIGARRENA.- Eskola-kirolaren kudeaketarako eta arretarako egitura espezifikoak sortu eta garatzeko dirulaguntzen deialdia onartzea, honako edukiarekin:

I. Eranskina: DEIALDIA

1. Xedea

Deialdi honen xedea da dirulaguntza hauen berri ematea: Tolosako ikastetxeei edo guraso-elkarteei, eskola-kirola programaren barruan, lehia bidezko konkurrentziaren arabera ematen zaizkien dirulaguntzak. Bi atal daude:

I. atala: eskola-kiroleko egitura espezifiko egonkorak sortzeko eta garatzeko.

II. atala: eskola-kirolaren esparruan eskola-orduetan egiten diren eta onura dakarten jardueretarako garraio-gastuei aurre egiteko laguntzak.

Eskatzaile bakoitzak atal batean edo bietan parte hartu ahal izango du.

2. Dirulaguntza egozten zaien kreditua eta aurrekontu-partida

Deialdi honetan emateko dirulaguntzen zenbateko osoa berrogeita hamar mila eurokoa izango da (50.000 euro), Tolosako Udalaren Aurrekontu Orokorren partida honen kargura: 1000.481.02.341.00 (2025).

3. Erakunde onuradunek dirulaguntza lortzeko bete behar dituzten baldintzak

Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 4. atalean ezarritakoaren arabera.

4. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu, eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

5. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 8. atalean ezarritakoaren arabera.

6. Balorazio-irizpideak

Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7. Proiektuak egikaritzeko-epea

Dirulaguntzaren xede diren jarduketak 2024ko irailaren 1etik 2025eko uztailaren 15era bitartean egingo dira.



8. Prozedura antolatu, izapidetu eta ebazteko eskumena duten organoak

Kirolak Sailak sustatuko du prozeduraren instrukzioa.

Sail horri dagokio eskaeren balorazioa egitea, txosten teknikoa eginda.

Dirulaguntza emateko proposamena Balorazio Batzordeari igorriko zaio, hark dagokion txostena egin dezan.

Honako kide hauek osatuko dute Balorazio Batzorde hori, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da, bestelakorik justifikatu ezean:

- Kontu-hartzailea edo teknikaria.
- Saileko teknikaria.
- Saileko zinegotzia.
- Idazkaritza Saileko AOT bat.

Instrukzio-organoak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori interesdunei jakinarazi beharko zaie deialdiak ezartzen duen moduan, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Ondoren, Alkatetzara igorriko da, hark, edo hark delegatutakoak behin betiko ebazpena eman dezan.

9. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Behin betiko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

10. Ebazpenaren jakinarazpena

Interesdunari ebazpena jakinaraziko zaio.

11. Dirulaguntza aldatzea

Deialdi honetan argitaratzen diren oinarri orokorren 16. atalean ezarritakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- Erabakia dirulaguntzen datu-base nazionalean (BDSNen), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Tolosako Udalaren web orrian eta Gardentasun Atarian argitaratzea.

Ebazpen hauek finkoak dira eta amaiera ematen diote administrazio-bideari. Erabakien kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:

Erabakien aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekursoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabakiak argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen



TOLOSAKO
UDALA

2025DO100002

Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki hauek argitaratu eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, Udal Idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregi

Sara Berasategui Fuertes



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025DO100002-DK_oinarriak_onartzeko_lehia/DC_aprobar_bases_competitivas (UDALA)